

Loinazco Martin Santubaren

BICITZA LABUR

BEDERATZIURREN TA ITZ-NEURTUBAC

ONDOREN

Gurutze-bide eta Errosariyoco
Virgiña guztiz Santaren
bederatziurrenarequin.

ARGUITARATZEN DU LIBURU AU
BEASAIN-GO ERRIAC
OBISPO JAUNAREN BAIMENAREQUIN,


TOLOSAN

Francisco Muguerzaren moldizteguian

1897-an

ATV

31335



H-70405
F-74360

AV
31335

Loinazco Martin Santubaren

BICITZA LABUR,

BEDERATZIURREN TA ITZ-NEURTUBAC.

ONDOREN

Gurutze-bide eta Errosariyoco

Virgiña guztiz Santaren

bederatziurrenarequin.

ARGUITARATZEN DU LIBURU AU BEASAIN-GO ERRIAC
OBISPO JAUNAREN BAIMENAREQUIN,

TOLOSAN

Francisco Muguerzaren moldizteguian

1897.an

JABIA BADU.

Loinazco San Martiñen

BICITZA LABURRA.

I.

Munduaren asieratic dabilta guizonac zoriontasunaren billa. Beren bicitza galtzeko perillean itsasoaz beste aldera dijoacenac, lurpean sartuta urrea, cillarra edo beste gauza baliosoren baten billa sayatzeen diranac, lurra maneatzen asi diran necazariac eta lanic gogorrenetan asi diranac ere, dabilta guciac zoriontasunaren ondoren. Baña ¿non arquitzea uste dute? Batec uste du zorionecoa izango litzaqueala aberastu ezquero; besteac uste du arquitzea dibersio eta atseguñen artean, eta badira cargu eta aguinte aundi-
diac izatean besteric pensatzen ez dute-

nac. Eta engañatzen dira. Salomonec izan cituan gauza oyec guciac, eta berac dioce ez dirala banidade utsa besteric: eta orregatic icusi oi dira munduan aimbeste descontentu; cergatic edo ez dute iristen deseo dutena, edo iristen badute ere, beti izan oi da ceren edo aren falta. Espiritu Santuac dio «Zorionecoac dala guizon garbia eta urrearen ondoren ez dabillena», eta alferric mundu guezurtiac sinisteraci naico digu diru ascorequin, pecatuzco atseguñaquin, eta aguinte aundiac izan ezquero, ez guenduquea-la beste cer deseaturic izango; bada guezurtatu ecin ditequeanac, Jesucristoc, eracusten digu Evangelio santuan, zorionecoac dirala, ez naico dirua dutenac, baicic pobreza escogitzen dutenac; ez atseguin lizunen artean bici diranac, baicic biotz garbicoac; ez aguinte aundiac dauzcatenac, baicic justiciagatic persecucia padecitzen dutenac. Beraz eguiazco abillac eta azcarrac ez dira munduac aunditzat eta zorionecotzat eduqui oi dituan oyec, baicican Santuac, Evange-

lioari jarraitzen diotenac. Santuac eza-
gutu dute munduco gauza circillen ece-
reztasuna eta balioeza, eta sayatu dira
ondasun irauncorragoen billa. Arrazoi
aundiarequin, bada, Elizac nai luque guc
Santuen pausoai jarraitzea, ayee Jesu-
cristorenai jarraitu cioten becela, eta
onetaraco jartzen dizquigu beguien au-
rrean ayen bicitzac eta ejemploac: eta
baldin badira gu bici gueran lecu oyetan
bertan bici izanduac, gu gabilzan toquie-
tan ibilliac, gure izcundea bera itzeguin
zutenac, eta gure artean beren aide eta
odolecoae utzi cituztenac, are poz gue-
yagorequin jaquin oi ditugu ayen be-
rriac. Ausse guertatzen zaigu Santu Bea-
saindarrarequin.

II.

Milla bosteun eta irurogueita seiga-
rren urtean cijoan; (1566) eta amar urte
osatzera cijoacen, mundua mundu dan
artean gogoangarria izango dan Guipuz-
coatar ospatsu ura, Aita San Ignacio Lo-

yolacoa, ill zanetic; eta Uztaillaren ama-seigarren egunean batayatu zan Beasaingo Parroquian aur bat, demboraz Loyolaco semearen antzera Jaungoicoaren gloriagatic eguiñalac eguingo cituana, eta ura becela, Guipuzcoaren honra aundiraco izan bear zuana. Jayo zan aur au Beasaingo Amunabarroco baserrian, eta zan Juan Garcia Loinaz eta Mari Martin Amunabarro, bertaco nagusi-echecoandreen semea. Aita-ponteco edo apaidiña izandu zan Martin Aramburu, eta Ama-ponteco edo amaidia izandu zan Marina Aramburu, Ama Birgiña Loinazcoaren Ermitaco serora, eta jarri cioten bere Aita-pontecoaren icena, *Martin*. Beraren ama Mari Martin Amunabarroc testamentua eguin zuan milla bosteun eta larogueita amaicagarren urtean (1591) Agorraren ogueita zortzian, Beizamaco Escribau Pedro Fernandez Olazabalen aurrean, eta an aitatzen ditu bere ume guciac: *Magdalena* Gracian Urdapilleta-requin ezcondu zana; *Maria Lucia*, Juan Alzo Jaureguirequin ezcondu zana; *Mar-*

tin, au da Santu Martiria; *Pedro*, Amunabarroco jayotechera ezconduta bertaco nagusi gueratu zana; *Catalina*, *Marina*, *Ana* eta *Maria* Loinaz. ¡Senitalde ederra!

Aci zuten Martin bere gurasoac Jaungoicoaren bildur santuan, eta nola ceterren berez aiñ ona, aiñ humilla eta aiñ esaneguiñecoa, etzuten izan neque aundiric beren semechoaren biotzean josiric becela utzitzeco Jesucristoren doctriñac eracusten dizquigun eguiac eta icasquizun aundiac. Lur onac eta ondo maneatuac, euriac eta eguzquiaz gozatuta, botatzen zayon acia ugariago ematen duan becela, orobat Martiñen anima Jaungoicoaren graciarequin gozatuaz eta prestatuaz cijoan, guero birtutezco frutu ugariac emateco. Esan dezaquegu adiñean aurreratuaz cijoan becela birtutean eta gracion ere aurretzen zuala Jaungoicoaren eta guizonen beguietan. Galdetucion egun batean Jesusi mutill gazte battec: «Maisua, ¿cer eguin bear det bicitza seculacoa iristeco?» Eta Jesusec eran-

zun cion: «Baldin betico bicitza irichi nai badezu, gorde itzatzu mandamentuac.» Gazte onen antzera Amunabarroco semeac ere, ezagutu zuan ezqueroztic mundura certara etorriac guerán, galdetu oi zuan sarritan: «¿Cer eguin bear det salbatzeco?» ¡Au bai dala galdera baliosoa, eta gucioc sarritan guerén buruai eguin bear guñoqueana! Berdiñ ¿cer balioco digu mundu guztia irabazteac ere, baldin anima galtzen badeagu? Bacoitzac anima bacarra degu, eta au galdu ezquero guztia galdua da guretzat.

III.

Escolatu zanean Martin, icusirie gurasoac beren semea ain buruz azcarra, eta birtuteraco eta Elizaco gaucetaraco biciro griñatua cetorrela, iritzi cioten Jaungoicoac elizguizonetaraco auquertua ceucala, eta artaraco asmoan, berac ere ala nairic, jarri zuten latíñeco gramática icasten. Onetan trebe jarri za-

nean, Primaz ordenduric, juañ zan amazazpi urterequin Alcalara, an bere carrerari jarraitzeco ustea. Etzuan, bear bada, orduan asco uste bere Errira gueya. go etorrico etzanic, eta are guchiago berac Beasaingo erriari eta Amunabarroco jayotecheari aimbete honra eman bear cionic! Baldin guc Jaungoicoaren borondate santua eguiten sayatzen baguera, leguez eta bidez eguin bear degun becela, Jaunac bere ontasun eta jaquinduria neurrigabearequin zucentzen ditu gure pausoac; eta Jaungoicoac gugandic cernai duan ezagutzen eta ori eguiten arre-ta gueyagorequin leyatuco baguiña, uste ez degun bidetic eta aleric iguerri gabe eramango guindue betico zoriontasunera. Ori eguin zuan beñepein gure santuarequin. Estudioetaco dembora izan oi da gaztearentzat peligroric aundieneco dembora, ez bacarric edaderic zoroen-zoroenean egon oi diralaco, baicican baita ere cergatic gurasoen beguia, bearren bearrena duten garayean, aye-tatic urruti egon oi diran, norc be-

guiratu aundiric ez dutela: gazteac berren carrerac eguingo badituzte, gueyenean juan bear izan oi dute Erri aundietara eta ¿norc ez daqui alaco toquietan gazteac galtzeco eta gaiztotzeco bide gueyago izan oi dana? Aimbeste gazte-gende biltzen dan lecuetan ascoren artean modu ascotacoac izan oi dira; eta lagun gaizto bat asco da beste asco galtzeco. ¿Cembat bider icusten degu nola gaztechoac juaten diran campoetara, gurasoen echean Jaungoicoaren bildurra eta oitura onac icasita, eta andic dembora guchira datocela lengo antzic ere gabe, lasaiqueria besteric aditzen etzayotela eta bicio gucien ustel-usaya alde gucietan banatzen dutela? Eta gueyenean mudanza ori lagun gaiztoen lana da. ¡Obe litzaque gurasoac ere ardura gueyago izango baluteque gai onetan!

Aldeguin zuan Martiñec peligro oyetatic. Nola baitzan aiñ icasizalea eta ain Jaungoicozcoa, igarotzen citzayon dembora edo liburuen gañean, edo Elizaren batean: ongui cequian jaquinduri utsac,

birtuteric gabe ez duala guizona arro-
queriaz betetzeco ez bada balio, eta ora-
cioan escatzen cion Jaunari beraren bo-
rondate santua ezagutu eta eguiteco ar-
guitasuna eta gracia: bacequian jaquin-
duriaren cimendua Jaungoicoaren bildu-
rra dala, eta eguiazco jaquinduria Jaun-
goicoa serbitzean dagoala, eta indartzen
zuan bere anima Sacramentuakin eta
ecitzen zuan bere gorputza mortificacio
eta penitenciarequin. Bere icaslanetan
guchi izan oi diran becelaco azcarra za-
laric, eta dembora guchian asco aurre-
ratzen zuana bazan ere, aĩn zan humilla
eta guciaquicoa ecen, etzan iñor ere nai
etzionic, eta bere lagunac, esan oi de-
gun becela, begui biac eman nai ciozca-
ten. Baña ez uste izan ala ere mundua-
ren estimacioac eta losencha guciac ere
engañatu zutela Martin. Ezagutu zuan
onec mundua, eta despreciatu zuan.

IV.

Gure Jaungoicoac bere escogituai

eguin oi dion mesederic aundienetaco bat izan oi da muudua cer dan ezagutzeco arguitasuna ematea. Ecin serbitu guintzaque dembora berean bi nagusi alcarren etsayac Jesus eta mundua diran becela, cergatic batequicoa eguin nai duanac bestearequin utseguiten du. Munduac esquiñi dezaquean gucia da honra, estimacioa, aberastasuna, atseguñac.... eta guero? Betico galera. Jesusec berriz esaten digu: «Nere ondoren etorri nai duanac, ucatu beza bere burua, artu beza Bere gurutzea eta jarrai dizadala neri». ¡Nori, bada, sinistu bearco diogu? Esquinitacoa ere ematen ez duan mundu guezurtiari, ala guezurtatu ecin ditzakean Jesucristori? Ez dago dudaric onen esana eguin bear degula. Bera dalaco gu salbatzera eta guri nola bici eracustera etorri zana; eta Aita Eternoac esan zuan garbiro asco Taborco mendian: «Au da nere Seme maitea, ceñagan dauzcadan Nic nere atseguin guciac: Beraren esana adi ezazute». Ona emen cergatic Santuac munduaren guezurrez-

co esquintzeac, aintzacotzat artu gabe, alde batera utzita, nayago izan duten Jesusi jarraitu neque, ezbear eta naigabe gucien gurutzearequin. Batzuec joan dira eremu eta basomortuetara munduco peligroetatic igues eguiteagatic, beste batzuec sartu dira Conventuetan, eta beste batzuec peligro oyen artean egon bear izan badute ere, despreciatu dute mundu losencharia, eta bici izandu dira garbiro arequin cutsutu gabe. Bacera-biltzquian Martiñec gauza oyec guciac bere buruan, eta gueroago eta arguiroago icusten zuan, gaur bai ta bigar ez diran, eta ala ere munduac aintzacotzat artzen dituan gauza oyen, ecerezqueria: gueroago ta obeto ezagutzen zuan anima salbatzea dala gauzaric bearren bearrena guretzat, eta au costaco dana costaric eguin bear degula; Ceruetaco erreinua indarrez arrapatu bear dala, eta norc bere burnari gogor eguin gabe an sartzeric ez dagoala. Pensamentu oyequin egunean baño egunean gueyago iracequitzen citzaizcan bere biotzean, mun-

dua despreciatzeco eta osoro Jaungoicoa serbitzeari equiteco deseoac. Bigarren urtea ceraman Alcalan, eta Filosofia icasten ari zan milla bosteun eta larogueita bostgarren urtean (1585); eta bere deseoac artaraco ciran guizonai aguerturic, eta onelaco lambideetan eguin bear dan becela, ayen consejuarequin erabaqui zuan San Franciscoren Ordenan sartzea, Auñongo errian arquitzen dan San Sebastiango Conventuan. Bacituan Loinazec Alcalan dembora artan beste laguneren artean bi, bera becela Guipuzcoatarra, eta irurac ciran Alcalara juan baño lenago gramatica icasten alcarrequin ibilliac; bata zan Juan Eguia, Legorretarra, eta bestea Juan Larte, Albisturtarra, eta oyei biai aguertu ciezen Loinazec bere asmoac. Esan cien nola Auñongo Conventuan San Franciscoren Ordenaco fraile sartzea erabaqui zuan, eta nai zuqueala biac Auñona laguntzea. Juan Eguiac etzuan juateco moduric izan, eta Lartec lagundu cion, eta icusi zuan habitua artzen.

V.

¡Norc esan gure gaztearen poza, bere burua Aita San Franciscoren seme humillen artean eta ayen jantzi pobrearequin icusi zuanean! ¡Cembat bider gogoratzen ote citzayon Jesucristoren esana «Zorionecoac pobreza escogitzen dutenac, cergatic ayena da Ceruetaco Erreina!» Luzaro presondegui batean ichian egonta, libratzen dana becela, edo itsaso aserrean galtzeco zorian gaizqui ibillita, portura iristen dana becela, Martin arquitzen zan pozaren pocez non dagoan ez daquienaren antzera, aimbeste peaturaco bide eta aimbeste anima galtzeco peligro beregan daucan mundu galdutic aterata Conevntuan sartu zanean. Nobiciaduco urtea beteta, profesatu zan milla bosteun eta larogueita seigarren (1586) urteco Mayatzaren amazpian, eta profesatzeco bezperan testamentua eguin zuan Escribau aurrez eta an utzi cituan gurasoentzat, lenago bere senipartetzat

eman ciozcaten Amunabarroco sagasti eta gaztañadi batzuec. Orra non Martinec gazteric, bada emaretzi urte eta amar illabete ceuzcan profesatu zanean, orra non profesatzean eguindaco botoaquin edo oyen bidez utzi cituan betico alde batera lurreco ondasunac eta atseguñac, eta ucatu zuan bere borondatea, jartzen zualaric besteren aguintepean. Gauza oyec izan oi dira guizonac Cerura bidean topatu oi dituan eragozpenic aundienac; eta lurrari erantsita becela eduki oi dutenac: orregatic erligiosoac castidadeco, pobrezaco eta obedienciaco botoac eguitean, urratzen ditu locarri ayec eta guelditzen da eragozpen ayec gabe, Jesucristori gurutzearequin jarraitzeko. Izanic bada Loinazco Martin gazte gaztetatic birtute guztien eta batez ere penitenciaren aiñ zalea, ez dago pensatu baicic cein arretaz eta nolaco eresiarequin sayatuco zan birtuteetan aurreratzten, erligioso baten eguinquizunac eta obligacioac bere gaiñ artu cituanean. Ibilli oi zan oñutsic cilicio penagarritz

bere gorputz guztia josita, ascotan barau eguiten zuan ur eta ogui utsarequin, eta beste gauzaric artzen bazuan ere, etzan belarren batzuec besteric. Gauero iru edo lau chandatan zatitzen zuan gogorquiro bere gorputz inocentea disciplinaquin. Bere atseguin gucia zan oracioan Jaungoicoarequin itzeguitea eta onetanche beñepein etzan aspertzen, eta aimbesteraño iracequitzen citzayon bere biotza Jaungoicoaganaco amorioan ecen, nai cituzquean eramam nequeric aundienac, eta eman nai cituzquean milla bicitza ere, izan balitu Jaungoicoaren gloriagatic. Onela igarotzen cituan gauac oracioaren eta penitenciaren artean, eta gueroenean ere, noiz bait bearda, loac botatzen zuanenan, etzuan oi biguñaren bearri izaten lo eguiteco. Jaungoicoaganaco amorio gartsu onetatic sortzen zan animac Ceruraco bide zucenera ecartzen lan eguiteco ceucan deseo eta eresi gucizco ura; eta jaquiñic Japongo alderdietan asco milla anima bici cirala ichumen osoan Ebangelioaren berriric

gabe, gueyago eta gueyago zaletzen zan
ara juateco, animac Jesusentzat irabaz-
teagatic, eta Martirioa iristeco usteare-
quin. Bitartean sayatzen zan gogotic,
eta aurreratzen zuan arrigarritzco mo-
duan bere estudioetan, eta ogueita bost
urtetic ogueita seira bitartean mezaz or-
dendu zan. Ez dago cer esanic aĩn goico
malla onetara eldu zan ezqueroztic Jaun-
gaicoorequin len baño ere bat eguiñagoa
eta oracioari emanagoa cegoana; eta
aimbesteraño iracequitzen citzayon bere
biotza Ceruco gaucen ganean jartzan za-
nean ecen, bein baño gueyagotan icusi
zuten ordu osoetan egoten ceruronz be-
guira, muguitu ere gabe, biciric ez ba-
cegoan becelasse. Au guertatu oi citza-
yon batez ere Mezaco Sacrificio santua
esqueintzen ari zanean, eta Fr. Marcelo
Rivadeneirac esaten digu nola Eguberri
egun batean Fr. Martiñen meza enzuten
cegoan gende guztia arri ta zur eguiñic
egon zan, cergatic caliza jasotzeco dem-
boran gueratu zan zurezcoa izan bazan
becela, eta bitarte artan ez arpeguian

eta ez gorputzean muguidaric chiquiena inore iguerritzen etziola. Fr. Marcelo au Loinaz ongui ezagutu zuana eta beraren laguna zan, eta anche zan Japonen, Fr. Martin eta beste Santu Martiriac ill cituztenean.

VI.

Esan degu cein gogo bicia ceucan Loinazec animac irabazten lana eguiteco eta Jesucristogatic bere odola issurtzeco. Mesede au escatzen cion Jaunari bere oracioetan Ama Virgñaren bitartez; eta orra non ustez ustecabean etorri zan Filipiñetatic erligioso bat Fr. Pedro Ortiz zeritzana, eta ango misioetaraco jua nai zuten erligiosoren batzuec eramateco cargua cecarrena. Jaquin zuan becin lasster Loinazec certara etorria zan Fr. Pedro, escatu zuan Filipiñetara joateco baimena, eta au arturic, jua zan oñez Sevillaraño, altzuan lassterrena ontzian sartzeco asmoan. Etzan orduan izan moduric ontzian joateco, eta biur-

tu zan Alcalaco conventura, eta dembo-
ra asco baño lenago irten zan berriz Al-
calatic, eta *Maestre Bernardo de la Pax*
ceritzayon ontzian sartu zan, lenago ai-
tatu dan Fr. Pedro Ortizen contura ci-
joacen beste erligioso ascorequin, milla
bosteun ta larogueita amairugarren ur-
tean (1593) illbeltzaren amabostgarren
egunean eta esateco ausi-osoric gabe le-
gorreratu ciran guciac *Veracruz* deri-
zayon errian, ceña baitdan Mejicoren
mendecoa. Esan degu etzutela ausi-oso
aundiric izan itsasoan joan ciran bitar-
tean; ez degu ordea orrequin esan nai
ceren edo aren eramankuizunic izan et-
zutela, bada gure Fr. Martin sopra pe-
natu zuten beromiñ edo calentura char-
batzuec. Pueblaco Santa Barbara deri-
tzayon conventura irichi zan arteraño.
An lecu arrec ondo arturic, dembora
guchian indartu zan bere osasunean, eta
ori seculan baño gueyago barau eta
mortificacio gogorrarequin gorputza pe-
natzen zualaric. Ama Birgiña Chiribus-
co-coaren conventura, Mejicon, jarri zu-

ten bere aguintariac Maisu edo Eracusle; eta an bere icasleen artean izandu zuan siñaletuenetaco bat zan Fr. Francisco Blanco, bere lagun chit maitea, ontzian erí egondu zanean contu eguin ciona, ez gauaz eta ez egunaz aldamenetic quendu ere gabe, eta azquenean ere martirioco lagun izandu zuana. Onetan Filipinetatic erligiosoen esquea etorri zan, cergatic chit guchi ciran an ceudenac, an cegoan aibat lan arpegui emateco. Beste batzuen artean ara joateco icentatuac izandu ciran Fr. Martin eta beraren lagun Fr. Francisco Blanco, eta milla bosteun eta larogueita amalaugarren urtean (1594) Mayatzaren azquen aldera irichi ciran Manilara. An ere bere jaquinduriaren fama izandu zuan bere contra; cergatic izanic gure Santuaren deseo eta eresi gucia missiotan neque asco igarotzea animac Jesucristorentzat irabazteagatic, eta albazunquean Evangelioagatic bere odola issurtzea, ala ere bere aguintariac, jaquiñic Fr. Martiñec ceucan doai bere-

ciaren berri gauzac arguiro eracusteco eta icasleai izan alditezquean icasquizun-
nic nequecenac ere erraz eta neque gu-
chirequin buruan sarreracitzeco eman
cioten Eracusle edo Maisuaren cargua,
eta naiz Teologia sagradua eta naiz
beste edocein gauza eracusten ari izan-
du zan bitartean, ongui icusi zan cein
artaracoa zan. Missioetaco neque eta
bicitza galtzeco peligroen artean etze-
billelaco, iruditzen citzayon ecer egui-
ten etzuala Jaungoicoagatic, eta nola-
bait ere neque ayec ordaintzeco, egui-
ten cituan penitencia icaragarriac, eta
tratatzen zuan bere gorputza ain gogor-
quiro ecen, erori zan gaitz chit peli-
grozco batean, eta estu estutic aterata
biciric gueratu zan.

Orduan bere aguintariac neurria ja-
rri bear izan cioten aren penitenciari.

VII.

Noizbait ere Jaunan ontzat artu cituan
Loinaz-en escariac, eta bete nai izan du

ciozcan bere dembora guztian izandaco deseo biciac, Milla bosteunda larogueita amaseigarren urtea (1596) sartu-berria zan eta artean illabete guchiz aurretic bialduac izandu ciran Japongo misioetara San Franciscoren ordenaco lau erligioso, an cebiltzan besteai laguntzera.

Lauretatican bat ontzian bertan illzan Japon-era irichi gabe; eta beste bat arrapatu zuan gaitz gogor batec, eta elbarrituric utzi zuan, ecertaraco etzala. Au Manilan jaquin zanean, ango erligiosoen buru eguiten zuanac erabaqui zuan ayen orde z joan citecela Fr. Martin eta onen lagun Fr. Francisco Blanco. ¡Norc esan alcarri aimbeste nai cioten bi lagun oyen poza, berri au jaquin zutenean? Ez du diru zalea aimbeste poztutzen urre pilla aundi bat billatzeac edo naiz irabazteac, nola bi erligioso oyec poztu cituan Japon-go alderdietara joan bear zutelazco berriac; eta ontzian sartzeco dembora cetorren bitartean, egun bacoitza urtebete iruditzen citzayen, lembaitlen joateco ceucaten deseoarequin. Esan

citequean ce aldeaurrez jaquiñaren gañean ceudela, bein Japon-en sartu ezqueroztic, Ceruan ere laster sartuco citala. Legorretatu ciran Nangasaki deritzayon erri aundi batean eta an arquitu zuten Fr. Jerónimo de Jesús, eta onequin egun banaca batzuec an igaro ta joan ciran Meakora, cergatic erri aundi enetan baitzegoan Fr. Pedro Bautista; Japonen ceuden erligioso banaca ayen buru eguiten zuana, eta argana aguertu bear zuten. ¡Oh ceñ atseguñ aundia artu zuan Fr. Pedroc Ebangelio santuaren arguitasuna zabaltzen laguntzeco bi languille ain bicañac bere aurrean icusi cituanean!

Etzan guchiagotaraco; bada izanic ain zabalac Japongo alderdi ayec, etzegoan dembora artan Fedea zabaltzeco sacerdoteric chit guchi baicic. San Martiñec berac escribatutaco carta batean esaten zuan Meakon bacarric deabruac baceuzcala bi milla templo eta emezortzi milla Bonzo edo idoloen sacerdoteac, eta erri aundi artan etzegoala bi Jesuita

besteric cristauai laguntzeco, eta ayec ere altzuten becela ibilli bear izaten zutela; eta Osaca eta Sacay beste erri aundi bi; bacoitza Sevilla ta Lisboa becela-coac cirala, eta batetic bestera iru legua bide daudela, eta ala ere Jesuita bat bacarra cegoala bi errien contua ceucana, eta batetic bestera issilca bertaco cristauen batzuec lagunduta, ibilli bear izaten zuala.

Etzan, beraz, arritzeco gauza Fr. Pedro Bautista asco poztutzea, alaco bi lagun etorri citzaizcanean. Arteraño etzeucaten conventuric Nangasakin eta Meakon baicic, eta orduan bereala erabaqui zuan Osakan beste bat eguitea, Ecertan asitzeraco eman bear ciran pausoac ematera, eta cerbait artaraco prestatzera, bialdu cituan aurrez beste batzuec, eta dembora zala iritzi cionean juan zan bera, gure Santua eta cristau Japondar banaca batzuec lagun artuta. Eche chiqui bat erosita, antolatu zuten Elizacho bat eta bici lecu bat, ain escasac eta pobrechoac ecen, orregatic be-

ragatic jarri cioten icena Belen.

Elizacho onetan etzegoan aldare bat besteric, eta aldare onetan imagiña bat bacarra, ceña zan Aurcho Jesusena escu batean gurutzea eta bestean iru iltze cituala. ¡Cein ederqui cetorquion jarri cioten icena! Beste lagunac bialduta, emen guelditu zan Fr. Pedro, eta bera-requin Loinaz eta cristau Japondar batzuec, eta laster Fr. Pedroc ere joan bearra izan zuan, eta gueratu zan gure Santua eche artaco buru, cristau ayetaco iru bere lagun cituala. Bazuen oyen artean bat bertaco jatorra, azcarra, itz-dun ederra eta ango gendearen berri ongui cequiana. Onequin ¡norc esan cembat anima ascatu cituan Loinaz-ec infernuco etsayaren cateetatic, eta ecarri cituan Jesusen uztarripera? ¡Norc esan cembati beguiac zabaldu cizten, fedea-ren arguitasuna icusteco, eta guezurrez-co Jaungoicoac utziric, eguiazcoac gu salbatzeco jarri zuan Eliza bacarrean sartzeco? Etzan nosqui lucea izandu San Martiñec Japonen igaro zuan dembora;

baña ez da alferric galdua ere, Orduan-
che arquitzen zan sasoiric onenean eta
osasun sendoarequin, eta nola Jaungoi-
coaren gloria eta animen salbacioa bes-
te ametsic etzeucan, beti bacebillen edo
errian edo campoan baserriric baserri,
dala eriac bisitatzen, dala lepradunac
consolatzen, nolana ere beñepeñ alde
gucietan ejemplo onac ematen, cerura
bidea eracusten eta animac eguiñalean
Jesucristorentzat irabazten.

VIII.

Jaquiña da idoloen socerdoteac begui
onez icusico etzituztena fede santuac
egunero eguiten cituan irabaciac, eta
eguiñal guztiac eguingo cituztena onen
aurrerapenac eragozteco, baita ere etzi-
tzayela faltaco norc lagunduric lambide
onetan. Cembat eta anima gueyago bil-
tzen cituzten San Franciscoren semeac
Jesucristoren artaldera, ambat eta aun-
diagoa zan idoloen sacerdote ayec ar-
tzen zuten gorrotoa Jesusen serbitzarien

contra. Dembora artan Japon gucico Emperadore cegoan Taicosama, guizon biotz gogorrecoa eta arroqueriaz betea; eta lenengotic erligiosoac ondo artu bacituan ere; guero icusi zanez, etzuan ecer ascoren bearric bere grña odolguiroac aguertzeco. Esan oi degun becela, bete bete eguin zuten au cristau gucien eta batez ere erligiosoen contra aimbesteraño ecen, aguindu zuan Japonen arkitzen ciran cristau guciac illtze-co. Icaratu ciran nombait Emperadorearen inguruc aundizquiren batzuec sentenci au cumplitzecotan eguin bearzan araquintza izugarriarequin, eta onec ecarri citzaquean ondorenaquin; eta oyen iritzira jarri zan Taicosama eta eman zuan bigarren sentencia cerbait biguñagoa; bada onec Japonen orduan arkitzen ciran San Franciscoren ordenaco amaica erligiosoetatic etzituan arrapatzten sei bacie, Osacan eta Meakon ceudenac. Nangasakin arkitzen ciranac, ceñac ciran Fr. Agustin Rodriguez, Fr. Martin Rivadeneira, Fr. Bartolomé

Ruiz eta Fr. Jeronimo de Jesus, eta beste bat Fr. Juan Pobre batetic bestera cebillena, etzeuden icentatuac illtzeco sentencian, eta utzi citzayen paquean. Icusi dezagun cer guertatu zan San Martiñequin. Milla ta bosteun eta larogueita amaseigarren urtea zan; (1596) eta esan degun becela, cegoan gure Santua Osacan bere iru lagun Japondarraquin Belengo conventu chiqui artan, eta orra non Abenduaren zortzigarreneco gauerdian etorri zan Osacaco Eraontzalle edo Gobernadoreac bialdutaco aguintari bat, eta conventua presiondegui zutela utzi cituan soldaduac, zaitzeco jarrita. Lenengo egunetan erraz igues eguin cezaqueten nai izan ezquero, baña, batec baño gueyagoc burutaratu arren, etzuten iñolaco moduz orrelacoric eguin nai izandu. Abenduaren ogueita amarrean etorri zan conventura beste aguintari bat soldadu talde aundiarequin eta laurai escuac atzera lotuta, eramán cituzten plazara, eta berealásse ara ecarri cituzten iru Jesuita ere, eta zazpirac solda-

duz inguraturic, equin cioten bideari Meakora joateco, bada an asi beartzan Taicosamaren sententia cumplitzen. Ez da erraz esaten cembat sufritu bear izandu zuten San Martiñec eta bere lagunac bide artan, ez aimbeste bideco nequea gatic, nola soldadu fede gabeco eta biotz-gogor ayen aldetic. Ala ere pocez beteric esquerrac ematen ciozcaten Jau-nari, beragatic cerbait sufritzeco bidea ematen cielaco: ongui bait cequiten Jaungoicoac beragatic eguiten dan eta sufritzen dan guztia oparo sariztatu oi duana. Meakora irichi ciranean, billatu cituzten an presoindeguian beste bost erligioso, ceñac ciran Fr. Pedro Bautista, Fr. Francisco Blanco, Fr. Gonzalo Garcia, Fr. Francisco de San Miguel eta Fr. Felipe de Jesus eta beste amabi cristau. Orra non bildu ciran ogueita lau lagun, Jesucristoren Fedeagatic odola issurtzeco eta martirioco palma irabazteco zai zai ceudenac. Sartu zan urte berria, eta illbeltzaren irugarren egunean atera cituzten guciac plaza aundi batera

eta banaca banaca bacoitzari quendu
cioten ezquerreco belarriaren pusca bat,
eta etzizayeten sudurric moztu, aguin-
duta cegoan becela, cergatic errico
aundizquiac bitarteco jarri ciran era-
gozteco. An etzan iñor bildurrez icus-
ten: ala ere ume batzuec gendea gue-
yena arritu zuten. Esan degun amabi
cristauen artean arquitzen ciran iru mu-
til chiqui, acolitoac Luis Tomó eta An-
tonio, zaarrena ere amairu urtecoa. An
ceuden ayec ere Aingueruac ciruditela
zai noiz baño noiz belarriac moztuco
ote cizcaten, eta onetan etorri zan bo-
rrero bat, eta cupida guchirequin moz-
tu cizcateu irurai. Orduan Luisec bere
belarri pusca lurretic jasota eracusten
cion borreroari, eta esan cion «*Guchi-
cho iruditzen zait*» Eta beste biac esa-
ten cioten «*Ebaqui, ebaqui, gueyago,
nai badexu: eta ase zaitex cristauen odo-
lex*» ¡Cein indartsua ote da Jaunaren
gracia! Bereala, ceuden becelasse es-
cuac loturic, igo erazo cituzten idi ba-
carrezco gurdi batzuetan, eta, ustez lo-

tsa gueyagoraco, erabilli cituzten calez cale genderic gueyena izan oi zan le-
cuetan icusgarritzat becela zortzi gurditan, da esatea, irunaca gurdi bacoitzean. Onetan igaro ciran ordu batzuec, eta noizbait ere ecarri cituzten berriz presoindegura, eta gurdietatic jachi beciñ lasster, San Martiñec lagun guciai banaca banaca atseguñic aundienarequin eman cien zoriñdea edo nora-buena, Jesucristoren icenagatic sufritze-co zori-ona izan zutelaco.

IX.

Biaramonean andic aterata, batzuec oñez eta besteac zaldiz eramán cituzten Osakara, eta erri onetan sartu ciran arratsalde erdian soldaduz inguraturic San Franciscoren ordenaco sei fraileac alzutén gucian ibilli ciran oñez, eta bacarric erri bacoitzeco sarrerán eta ateratzean, nai ta nai ez igoeracitzen cituzten edo gurdietan edo zaldietan, gendeac obeto icusi citzan eta lotsa

gueyagoraco. Onela erabilli cituzten er-
riz erri nequeric ascorequin; eta ala ere
neque guciac pozic ceramazquiten, ain-
tzacotzat artu ere gabe, Jesucristogatic
eta aren Fedeagatic ceramazquitela pen-
satuta. Osakan lagun eguin citzayen cris-
tau Japondar bat Francisco Faleñame
ceritzana, arrotza, eta San Franciscoren
irugarren Ordenan sartua, eta onec, sol-
daduac beti golpeca cebilquitelaric ere,
etzuan beñere aldeguin nai izandu bide
guztian, eta dala martiri santuac zaldi
gañera edo gurdietara igo edo jachi bear
zutenean, dala nor edo nor eciñ ibilli
zanean, beti an zuten laguntzen inoren
beldurric gabe.

Nangoya deritzayon erri batean ere
beste cristau bat lagun eguin citzayen
Pedro Sagnexiro ceritzana. Onec ceca-
rren diru piscarembat Martiriai altzue-
neraño laguntzeco, eta soldaduac nabaitu
edo usandu ciotenean dirua bazuala, be-
reala arrapatu cioten. Galdetu cioten Pe-
drori eta Francisco arrotzari «ea cris-
tauac altziran» eta biac bildurric gabe

erantzun zuten «Bayetz ala cirala». Gueyagoco gabe soldaduac berac erabaqui zuten biac illtzea, ala bata nola bestea, eta guero Nangasakico Gobernadoreac ere ontzat eman zuan soldaduen sentenciura; eta orra non, lenago ogueita lau becela, orain gueratu ciran ogueita sei, illtzeco icentatuac. Ain bide lucean cijoacen Martin santuac eguneroco ibiltzia-requin biciro necaturic, batzuec oñac aundituta, zaurituta, ceramazquiten al-tzuten becela. San Martin cijoan oñez, alde gucietan Jesucristoren Leguea adieraciaz, eta ain pizcor eta alai non baciduriance festara cijoala. Eguia da sa-soiric onenean cegoala, baña onec ba-ño ere gueyago pizcortzen zuan Jesusen-gatic bere odola isurtzera cijoala pensa-tzeac. Otsaillaren laugarren egunean sar-tu ciran egüerditic laster Sononki deri-tzayon erri batean; eta jaquiña da ayen ostatua carcelan izan oi zala. Biaramu-nean goicean goiz prestatu ciran gu-rutzeac Nangasakin, eta gendea zai ce-goan noiz baño noiz ecarrico ote cituz-

ten illtzera Santu Martiriac. Bederatzi ta erdiac izango ciran beren illtoquiac icusteco lecura irichi ciranean. ¡Norc esan lezaque ayen barrenetan orduan cer igaro zan? Icusten zuten cein dembora guchi falta citzayen Ceruan sartzeco, eta dudaric gabe beguiratzen cioten gurutze ayei Jaungoicoac Ceruco atea zabaltzeco bialtzen cien guiltza batzuei becela. Beñepeñ ordutandic etzan ibilli-eciñic. Lenago muguitu ecin ciranac ere orain etzuten iñoren bearric azcar ibiltzeco. An icustecoa zan nola bata cijoan bere gurutzea laztantzera, besteac alcar besarcatzen zuten, besteac belaunicatzen ciran gurutzearen aurrean, eta soldaduac bazuten lanic asco Santu Martiriai Ceruan sartzen ciralaco, encarguac ematera cijoacen cristauai ecin alderaguñic. Orduan, nola Fr. Pedro indarrez ain escasa cegoan, eguin zuan Fr. Martiñec sermoi bat ederra, bere lagunai esanaz cein mesede aundia eguiten cien Jaungoicoac gurutzean illtzeco zori-ona emanarequin, odola issuriaz

lenago gurutzean gugatic berea issuri zuanaren fedeagatic. Issildu zan gure Santua eta juan zan berarentzat gurutzea cegoan toquira eta muñ eguin cion, esqueñiaz Jaunari berriro bere odola eta bicitza biotz-biotzetic. Etzin zuten gurutzearen gañean eta besteai becela jarri cioten burni-erraztun edo ustai chiqui bat lepoan gurutzeari josita eta beste bana bi escumuturretan eta oñetan. Gurutzeac jaso ta guero, ceruronz beguira cegoala, sartu ciozcaten bi lanza gurutzetara, da esatea, bat ezquerreco sayetsetic sartu eta escuico sorburutic ateratzen zala, eta bestea escuico sayetsetic sartu eta ezquerreco sorburutic ateratzen zala, eta anima garbi ura igo zan Cerura beti zorionezgoa izateco. Martirio au guertatu zan Santa Agueda egunean Otsaillaren bostean, milla ta bosteun eta laroqueita amazpigarren urtean (1597). San Martinec ogueitamar urte, sei illabete eta oguei egun cituala.

X.

Berri oyec Euscalerrira etorri cira-
nean, jaquiña da demboraldi batean be-
ñepein emen beste gauzaric aotan ibi-
llico etzana, cergatic nola amairu urte
besteric etzan oraindic Amunabarroco
semea emendic Alcalara joan zala, inor
guchi izango zan Beasain-inguruan gaz-
te ura ezagutzen etzuanic. Senideac
berriz beren aldetic, ez dago cer esa-
nic, beren anayaren illberria aditu zu-
tenean, eguiño zuten eguiñala eguia
ote zan eta cer edo nola guertatu zan
jaquiteco. Obeto jaquiteagatic, D. Pedro
Loinaz Beasaingo Erretoreac, ceña bai-
tzan Martiriaren osaba, izcribatu cion
Fr. Juan Pobrerri martirioco demboran
Japonen arquite zala cequialaco, jartzen
ciozcan bere illoba Loinazen siñale eta
ezagungarri guztia, eta galdetzen cion
«ea Japonen ill zuten Fr. Martin ura be-
re illoba, Erligioan Fr. Martin Ascencio-
coa deitzen ciotena zan», eta erantzun
citzayon, Bayetz, ura bera zala.

Milla seireunta ogueita zazpigarren urtean (1627) Aita santu Urbano sortzigarrenac zoriondetu edo *beatificatu* cituan Japongo ogueitasei Martiriac, eta eman zuan oyeri aldareetaco honore eta cultoa emango bacitzayen, artaraco bear zan baimena. ¡Cer honra Guipuzcoaco Provinciarentzat dembora guchian bere seme bi aldareen gañean jartzen icustea! San Martiñec, beraren cultoa asizanean bici izandu balitz izango cituan irurogueita bat urte. Oraindic bici ciran beraren senideetatic bost; Pedro, ceña zan jayotecheco nagusia; Catalina, Magdalena, Lucia eta Ana Loinaz. Oyec, Martiri Santuaren senideac ciralazco aguiriac bialduta, escatu cioten Aita Santuaren Nuncioari beren anaya jayotaco guelan eguin cioten Capillan meza emaneracitzeco escubidea, eta escatu becela eman citzayen betico. Iraun zuan Capilla onec milla zortzireunta irurogueita amazpigarren urteraño: (1877) orduan ustez ustegabe erre zan Amunabarro; eta nola orduco echejabeac eraguin zuan

berria beerasseago, Beasaingo erriac bere costuz eguin zuan capilla berria Santua jayotaco guela cegoan toquian bertan eta lenagoco neurri ta luce-zabala-requin berarequin; eta urteoro an eman oi da meza. San Martiñen jayotzaco egunean Uztaillaren amaseyea. Amunabarro berriaren azpicoaldean dago Provinciac eta Beasaingo erriac eraguindaco Eliza polit bat iru aldarerequin: erdicoan dago San Martinen imagina, eta aldameneco bietan aren martirioc lagun San Luis eta San Antoniorenac. Arquitzen da Eliza au Maleza-mendiaren oñean eta Idiazabal aldetic datorren bi-dearen aurrez-aurre, lenago aitatu degun Ama Birgiña Loinazcoaren Ermitatic urrutigabe. Oraingo Eliza au baño lenagotic bazan beste bat San Martiñen honran eguiña, bere jayotechearen alde-
rago.

Au eguiten ari cirala milla seireunta irurogueita bostgarren urtean, (1665) guertatu zan gauza arrigarri bat. Arriz biciro escas cebiltzan arguiñac, urrutitic

ecartzeco era aundiric etzegoan, inguruetan arrobi bat billatuco zutelaco sayatzen ciran, baña alferric, eta lanari utzi bearco ciotenez etsita cebiltzan. Onetan Apirillaren ogueitaseyea egüerdian aditu zan ots aundi bat: juan ciran cer ote zan, eta icusi zuten Amunabarroco barruti batean mendia lertu zala eta luici bat becela bota zuala arri ederra eta ugari, eta etzan gueyagoren bearric izan Eliza eguiteco. Beste gauzaric etzebillen orduan gendearen aotan Beasañen eta auzoerrietan, eta orra non andic egun guchira Mayatzaren iruan, Beasaingo Elizan Aldare nagusian cegoan San Martiñen imagiñaren burugañean aguertu ciran iru argui, besteric ez becelaco icusgarriac; Ave Maria bat esateco demboran becela ezcutatu ta berriro aguertzen ciranac: iraun zuten egun artan eta urrengoan, eta lampara itzalita, bazterrac ondo icusita eguiñalic asco eguin zan argui ayec nondic eta nola sortu ote aitezquean jaquiteco, eta ala ere etzan eceren aztarnic arquite. Bi egun

ayetan auzoerrietaco gendea procesioan becela ibilli zan juan eta etorri Beasaingo Elizara, mirari au icustera; eta Pamplonaco Obispo Jaunac gauza oyen berri ongui icasita, eman bear ciran pauso guciac emanta, guertaera oyec biac milagrotzat eman cituan urrengo Ilbeltzaren emezortzian.

(1642) Milla seireun ta berroqueita bian Beasaingo Erriac autu zuan San Martin bere Patroi edo Goartaritzat Aita Santu Urbano zortzigarrenaren baime-narequin, eta milla seireunta iruroqueita lauean (1664) jarri zan Santu onen ice-neco cofradia, eta Alejandro zazpigarrenac eman cituan indulgencia edo barca-men ugariac an sartzen diranentzat. Pio bederatzigarrenac *canonizatu* edo Santuen listan jarri cituan Japongo ogueitasei Martiriac eta gañera San Miguel de los Santos milla zortzireun ta iruroqueita bian (1862), eta orduan berriro asi zan Bergara ta Beasainen artean anciñatic sortutaco aucia, eun ta gueyago urtean gueldi cegoana. Esaten zuten Ber-

gararrac Japonen Martirioa sufritu zuan Fr. Martin Ascencioco ura zala Bergaraco semea eta Aguirretarra: Beasainec berriz cion zala Beasaingoa eta Loinaztarra. Ez da Euscalerrian inor ez daquianic nola sayatu ciran bi Erriac berenarequin ateratzeco, eta azquenean ere, noiz bait bearta, bucatu zan aucia Erroman eta erabaqui zan betico Beasainen alde. Ez dago, bada, gueyago ecer esan bearric onen gañean.

¡Loinaz eta Loyola Euscalerriac beti bere alde izan ditzala!

O. S. I. S. R. E.

ASCENSIYO TA LOINAZCO MARTIN SANTUBAREN
GOITICEN TA JAYET-ERRIYA SENDOTZEN DITUAN
ERROMACO RITO-BATZARREAREN

EPAYA

Romana seu Hispana.

Nonnullis elapsis annis postquam minores Coelitum honores á sa. me. Urbano Papa VIII decreti fuere Martino ab Ascensione, alteri á Franciscalium Sodalibus, qui cum aliis viginti duobus, ex suo Ordine, et tribus é Societate Jesu Alumnis, gloriosam pro Christo mortem in Japoniæ regno opetiit: gravis exorta est controversia inter Beasainenses et Virgarienses Cives, de loco in quo præfatus Martyr natus est, et de familia de qua originem duxit; cum Beasainenses Martinum suum esse Civem affirmarent et in suo oppidulo de Familia de Loynaz natum, dum Virgarienses illum in sua Civitate esse natum ex Familia de Aguirre contenderent. Ad Sacram vero Rituum Congregationem eadem controversia jam inde ab anno 1744 fuit á Virgariensibus delata, sed res quievit quamprimum ac siluit usque ad annum 1862. Tunc enim quum á SSmo. Dño. Nostro Pio Papa IX majores Coelitum honores Beato Martino ejusque Sociis tributí fuerint,

iterum exarsit controversia, ac Virgarienses apud ipsam Sacram Congregationem instituerunt, ut quæ anno 1741 suscepta fuerat, resumeretur Causa.

Concordato itaque inter Partes sequenti Dubio, nimirum: *An Sanctus Martinus ab Ascensione sit de Familia de Loynaz, vel Loiaz, vel Loinez, vel Loies, et ortum duxerit in Vico Beasain, olim Pampilonensis, nunc Victorien-sis Dioceseos: an potius sit de Familia de Aguirre et ortum habuerit in Virgaria, Dioce-seos olim Calagurritanae nunc Victoriensis.*»

Sacra eadem Congregatio, utraque parte, voce et scripto informante, audita, visisque juri-bus hinc inde deductis ad relationem Emi. et Rmi. Dñi. Cardinalis Josephi Andreæ Bizzarri, causæ Ponentis, sub die 13 Aprilis 1867, rescripsit: **Affirmative ad primam partem, Negative ad secundam.**

Verum ad instantiam Virgariensium, vi-gore novæ Audientiæ ab ipsis obtentæ, proposita iterum controversia per eundem Emum. Ponentem super Dubio: *An sit stan-dum vel recedendum à decisis*, Sacra eadem Congregatio, auditis iterum partibus voce et scripto informantibus, visisque novis exhibi-tis juribus, sub die 10 Martii 1869 rescribere rata est: **In decisis.** Virgarienses tamen pe-tierunt et obtinuerunt novam Audientiam. Quapropter eadem controversia per prædic-

tum Emum. Ponentem subsignata die reposita sub eodem Dubio videlicet: *An sit standum vel recedendum á decisis* Sacra Congregatio, audita tantum Beasainesium parte voce et scripto informante iterum respondit: **In decisis.** Atque ita decrevit die 2 Martii 1872.

Erroma alde edo Españiraco.

Martin de la Ascension Franciscoreneta, beste oguei ta bi fraile bere jantzico ta iru Jesusen Lagundicorequin Japongo erreinuan Jesucristogatic eriyotz gloritsu bat eraman zuana, Aita Santu Urbano zortzigarren go-goangarriyac Zorionecuen mallacotzat eman ta urte batzuetara, Beasain ta Bergaraco erricoen arte, esandaco martiriya non jayo, ta bere zaizquiya ceñ zan, apuco bici-bici bat piztu zan. Beasaingoac Martin arrená zalla cion, ceren Loinaz-darretatic eta erri onetan jayo zan. Bergaracoac berriz berenian ta Aguirretarretatic jayotzat nai zuten. Ri-toetaco Batzarre sagradaturic 1741-an Bergarac auci au, sarri, aurrerapenic gabe ta issil-issilla, alic eta 1762-en urte arte guertu zan. Orduan ordia, Aita chit santu Pio bederatzigarrenac Martiri zorionecoa ta bere eriyotz-lagunac Santuen mallacotzat nola aitortu baitzitan, Bergarac Batzarre Sagra-

dubari 1741-an oña jarri ciyon, auciyari eraguin cezayola equin ciyon, ta apuco au berritu zan.

Onlaz, ta bi aldiyac alcartu ta onaco galdera au ezarriric: «San Martin de la Ascension Loinaz edo Loias edo Loinez edo Loies tarien zaizquicua ta Beasain, leen Iruña ta orain Vitorico Obispo-lurrecoa dan erriyan jayoa ote dan; edo obeto, Aguirretarren zaizquicua ta Bergara, Calahorran len ta orain Vitorico Obispo-lurrean dagon erriyan jayoa ote da.» Batzarre Sagradubac berac, bi alderdiyai, cegozcaten itz ta escribuzco arguizunac entzundacuan, baita zucen-bidezco oarquetat ta Cardenal Jaun guztiz gañ ta guztiz gurgarri José Andres Bizarri, auciquetariyac esan zuenaz bat, 1867-eco Apirillaren 13-an erabaqui zuan «Galderaren aurrenerdiari, bayetz: ez bigarrenari.»

Orregatican, Bergaraco ayecac ontaraco adi aldi berri bat irichi zuan ta lengo Auciquetari chit gañ beraren bidez, ta osterako onco duda-gai onen gañean escatu zuan: «*Erabaquira guellditu bear zan edo erabaquiya eceztatu citequean*». Batzarre sagradubac, beste beñ gueyago bi alderdiyen itzez ta escribuzco aguiriyac, ta zucenbidezco esauizunac entzundacoan, 1869-eco Marchuaren 20-an erantzuteratu zan «*Erabaquira*». Bergararrac, orregatic, escatu zuten, ta irichi ere bai,

entzunaldi berri bat, ta onezaz ipiñiric berri-ro Auciquetari guciz gañaren bidez egun berrian bigarren auci-epea: «*Erabaquira guelditu bear zan edo erabaquiya ezeztatu citequean*». Batzarre sagradubac itz ta izcribituz aguiriztatu zuan Beasain-en lecuba zuana bacar-bacarric entzunarequin, berriro erantzun zuan «*Erabaquira*» ta alasse aguindu ere, 1872-eco Marchuaren 2-an.

Sillu-lecuba.—C. Veletri ta Ostiaco Obispo Cardenal Patrizi Rito-etaco Batzarre Sagraduco Leentza duna—D. Bartolini, Rito-etaco Batzarre Sagraduco Issil-zaya.





LOINAZCO
Aita San Martiñen
BEDERATZIURRENA.

Gurutze Santuaren etc.
Aitaren etc.

Acto Contriciozcoa.

Jesucristo nere Jauna, Jaungoico eta Guizon eguiatzcoa, nere Criadorea, nere Erredentorea, Zu cerana ceralaco, eta cergatic amatzen zaitudan beste gauza guciac baño gueyago, damudet, Jauna, biotz guztitic Zu ofenditua: Indazu arren zu herriro ez ofenditzeco eta Bederatziurren au Loinazco San Martin gloriosoaren honran ongui eguiteco gracia. Amen.